

# Landareak

JAKOBA ERREKONDO

## Gingil-hurritz

TXERTATZEN DIREN eta ez diren fruitu arbolen izerdialdi berrieroko loraldiaz aritu eta arbendolondoa, *Prunus dulcis*, almendrondoa ez aipatzea, ederra egin nuen aurrekoan. Ugariena ez, baina arbendolondotik erruz dugu Euskal Herrian.

*Vitis vinifera*, mahatsetik bai galanki; bere lorearen dotoreziagatik behintzat ez zaigu ezagun –errepairatu al diozu inoiz mahatsondoaren loreari?– baina bai bere fruitu mordoei kentzen diegun fruitu mordoagatik. Zukutzeko fruituak ematen dituzten arbolak izango dira, noski, mahatsaren segidakoak: *Olea europea* oli-

bondoa eta *Malus x domestica* sagarrondoa. Inola ere garraztea nahi izaten ez den oliba olio egiteko, bata, eta mikatz puntua behar baina inondik inora oliotzea nahi izaten ez den sagardoa egiteko, bestea.

Fruituaren mamia jota sortutako muztioa, mama gozoa, eskuratzeko jartzen direnez beste, fruitu arbolen artean hazia jaten diegunetik dugu gogotik. Ezagunenak hurra, intxaurra eta arbendola.

*Corylus avellana*, hurritza nonahi da gure bide bazterretan, baita basoetan ere. Lehen ere aitatu izan dut, ez alferrik, euskaldunok bizia zor diogu, milaka urtetan gure bizigai nagusia izan den zuhaixka honi. Agian honexegatik hankapean darabilgu eta barre iseka egiten diogu kultura latinoen kolonizazio sotilaren fruitu nabarmenenetakoak diren intxaurraren, *Juglans regia*, eta arbendolondoren fruituak aho beteka irensten ditugun bitartean.

Izenetan argi dago, intxaurra baino zaharragoa izango da hurra. Arbendolondoi gingil-hurritza ere deitu izan zaio. Arbendola bera belarri-gingilaren tankerakoa delako edo.

Zuhaitz guztiak haritzak eta lizarrak ziren garaietarako bidean artamugarria da hurritza. Hurrak ematen dituen haritza. Eta hur alea “goian edo zintzilik dagoen edo goitik datorren ontzi baten barruan dagoen bizia”. Ulertzekoa da fruitu barruetako haziei hur erantsi izana: intxaur, gingil-hur...

SEELENSTURM-CC BY SA



Arbendolondoa, *Prunus dulcis*.

# 08:19

Landareen energia iturria argia da. Ahal den energia gehien hartzeko borrokan landareak argia duten aldera zuzentzen edo okertzen dira. Lurretik hartutako jakiak eraldatu eta erabiltzeko moduan jartzeko hostoetara garraiatu behar ditu. Hostoek forma jakina dute argiari ahal den etekin onena kentzeko. Zortzi minutu eta hemeretzi segundo lehenago eguzkitik edo segundo bakar bat lehenago ilargitik abiatu den argiari.

**EKILORE**  
Lorzaintza eta loradenda

© 943 795 546  
Elorregi bidea · Arrasate (Gipuzkoa)